Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

# BIZKAIKO KIROL FEDERAZIOEK KIROLARI ADINGABEEN DATU PERTSONALAK TRATATZEKO GIDA

# GUIA PARA EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES DE DEPORTISTAS MENORES DE EDAD POR PARTE DE LAS FEDERACIONES DEPORTIVAS DE BIZKAIA

## ALDEZ AURRETIK KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Bizkaiko kirol-federazioek lankidetza-hitzarmen bat sinatzen dute urtero Bizkaiko Foru Aldundiarekin, eskola-kiroleko kirol-jarduerak garatzeko eta kirol-modalitate bakoitza sustatzeko. Hitzarmenen II. eranskinean, datu pertsonalen babesari buruzkoan, jasotzen da hitzarmena egiten duen federazio interesduna tratamenduaren arduraduntzat hartuko dela, eta datu pertsonalak eskuratu eta/edo tratatu ahal izango dituela; Kirolaren Zuzendaritza Nagusiak, berriz, tratamenduaren erantzukizuna izango du. Gainera, bi alderdiek beren gain hartzen dituzten betebeharrak ezartzen ditu eranskinak, eta honako hauek zehazten ditu: babestu beharreko datu pertsonalak, egin beharreko datuen tratamenduari buruzko jarraibideak, haien helburua eta federazioak ezarri beharreko neurriak.

Kontuan hartuta *EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAK, 2016ko apirilaren 27koak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenak eta 95/46/EE Zuzentaraua (aurrerantzean, DBEO) indargabetzen duenak*, 29. artikuluan xedatzen duela tratamenduaren arduradunek arduradunaren jarraibideei jarraituz soilik tratatu ahal izango dituztela eskuratzen dituzten datuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirolaren Zuzendaritza Nagusiak egokitzat jo du txosten hau egitea, federazioek argiago izan dezaten nola jokatu kirolari adingabeen datuen tratamenduaren aurrean.

Indarrean dagoen araudia osorik betetzeko asmoz, Bizkaiko Foru Aldundiko Segurtasuneko eta Datuak Babesteko Atalari kontsulta egin zaio, eta haren irizpena erabili da txosten/gida hau egiteko oinarri gisa.

## CONSIDERACIONES PREVIAS

Las federaciones deportivas Vizcaínas firman anualmente un convenio de colaboración con la Diputación Foral de Bizkaia para el desarrollo de las actividades deportivas incluidas en el deporte escolar y la promoción de las respectivas modalidades deportivas. En el Anexo II de los convenios, relativo a la protección de datos personales, se recoge que la federación interesada con la que se realiza el convenio tendrá la consideración de persona encargada del tratamiento, pudiendo acceder y/o tratar datos personales, mientras que la Dirección General de Deporte será la persona responsable del tratamiento. Además, el anexo establece las obligaciones que asumen ambas partes, detallando los datos personales a proteger, las instrucciones en relación con el tratamiento de datos a realizar, su finalidad y las medidas a implementar por la federación.

Teniendo en cuenta que el artículo 29 del *REGLAMENTO (UE) 2016/679 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE* (en adelante RGPD) señala que los encargados del tratamiento solo podrán tratar los datos a los que tenga acceso siguiendo las instrucciones del responsable, la Dirección General de Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia ha estimado conveniente emitir el presente informe en aras a que las federaciones tengan más claro cómo actuar respecto al tratamiento de datos de deportistas menores de edad.

Con el objetivo de cumplir íntegramente con la normativa en vigor, se ha consultado a la Sección de Seguridad y Protección de Datos de la Diputación Foral de Bizkaia, cuyo informe ha servido de base Para realizar el presente informe/guía.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z6CG-JI7F-L2ZL-1PA9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

## EZARRI BEHARREKO ARAUTEGIA

Datu pertsonalen eremu subjektiboari dagokionez, DBEOk adierazten du, *datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, pertsona fisikoen babesa oinarrizko eskubidea dela. Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren («Gutuna») 8. artikuluaren 1. apartatuak eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 16. artikuluaren 1. apartatuak ezartzen dute pertsona orok duela berari dagozkion datu pertsonalak babesteko eskubidea.* Hortaz, federazioak kudeatzen dituen kirol-jardueretan parte hartzen duten kirolari adingabeak datuak babesteko eskubidearen titularrak dira.

DBEOko 4.artikuluak honela definitzen du zer den datu pertsonala: *"pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri («interesduna») bati buruzko informazio oro; pertsona fisiko identifikagarritzat hartzen da identifika daitekeen pertsona oro, dela zuzenean edo zeharka, eta partikularki identifikatzaile bat erabilita, hala nola izen bat, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, lineako identifikatzaile bat edo pertsona horren identitate fisiko, fisiologiko, genetiko, psikiko, ekonomiko, kultural edo sozialaren elementu bat edo gehiago"*.

Bestalde, federazioek tratatzen dituzten datu pertsonalak adingabeenak direla kontuan hartuta, aipamen berezia egin behar zaio *Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren* 28. artikuluan ezarritakoari. Artikulu horretan jasotzen da tratamenduaren arduradunek eta eragileek neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak zehaztu behar dituztela tratamendua bermatzeko eta egiaztatzeko, datuak babesteko araudiaren arabera. Zehazki, artikulu horren bigarren apartatuko e letran, arreta berezia jarri behar da adingabeekin egiten diren tratamenduetan.

Aurreko ataletan aipatutakoa kontuan hartuta, Kirolaren Zuzendaritza Nagusiak honako hauek partekatzen ditu federazioekin:

## ONDORIOAK

1.- Bizkaiko kirol-federazioek kirol-jardueretan parte hartzen duten adingabeen datu pertsonalak dagokion lankidetza-hitzarmenean jasotako

## NORMATIVA APLICABLE

En Relación con el ámbito subjetivo de los datos personales, el RGPD indica que *La protección de las personas físicas en relación con el tratamiento de datos personales es un derecho fundamental. El artículo 8, apartado 1, de la Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea («la Carta») y el artículo 16, apartado 1, del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea (TFUE) establecen que toda persona tiene derecho a la protección de los datos de carácter personal que le conciernan.* Así, las y los deportistas menores de edad que participan en las actividades deportivas gestionadas por la federación son titulares del derecho a la protección de datos.

La definición de dato personal la realiza el artículo 4 del RGPD como *"toda información sobre una persona física identificada o identificable («el interesado»); se considerará persona física identificable toda persona cuya identidad pueda determinarse, directa o indirectamente, en particular mediante un identificador, como por ejemplo un nombre, un número de identificación, datos de localización, un identificador en línea o uno o varios elementos propios de la identidad física, fisiológica, genética, psíquica, económica, cultural o social de dicha persona"*.

Por otro lado, teniendo en cuenta que los datos personales que tratan las federaciones pertenecen a personas menores de edad, cabe hacer una especial mención a lo establecido en el artículo 28 de la *Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales*, en el que se recoge la obligación tanto para responsables como para encargados del tratamiento de determinar medidas técnicas y organizativas apropiadas para garantizar y acreditar el tratamiento conforme a la normativa de protección de datos, y en concreto, su apartado segundo letra e, por el que se requiere tener especial consideración con aquellos tratamientos llevados a cabo con menores de edad.

Teniendo en cuenta lo mencionado en los apartados anteriores, la Dirección General de Deporte comparte con las federaciones las siguientes

## CONCLUSIONES

1.- La federaciones deportivas Vizcaínas únicamente podrán tratar los datos personales de las personas menores de edad que participen en las actividades

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z6CG-JI7F-L2ZL-1PA9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

jarraibideen arabera soilik tratatu ahal izango dituzte, federazioa tratamenduaren arduraduntzat hartuko baita.

2.- **Datuen tratamenduak datuak babesteko araudian ezarritakoa errespetatu beharko du**, eta, bereziki, DBEOren 5. artikuluan arautzen diren tratamenduaren printzipioak bete beharko ditu. Horretarako, printzipio horiek betetzen direla bermatzeko moduak antolatu beharko dira.

3.- **Datuak minimizatzeko printzipioa**ri dagokionez, neurri teknikoak eta antolakuntzakoak aplikatu beharko dira, **tratamenduaren xedeetako bakoitzerako behar-beharrezkoak diren datuak tratatzen direla** bermatzeko. **Era berean, interesdunen eskubideak babesteko neurri teknikoen aplikazioa baloratu beharko da.** Hala, datu pertsonalen bat edozein bitartekoren bidez argitaratzen bada, **behar-beharrezkoa ez den informazioa ezabatu beharko da argitalpenetik**. Gainera, argitalpenetan **jokalarien izen osoa seudonimizatu beharko da, eta horren ordez lizentzia-zenbakia jarriko da**.

4.- **Adingabe orok bermatuta izango du** bere interes gorena baloratu eta lehentasunezkotzat jotzeko **eskubidea** berari dagozkion akzesio eta erabaki guztietan, eta bereziki kontuan hartu beharko da adingabeen datu pertsonalen tratamenduari buruzko araudiak jasotzen duen **babes indartua**.

5.- Federazioak **tratamenduaren arduradun** gisa jarduten duenean, **datuak babesteko araudiak ezartzen dizkion betebehar guztiak bete beharko ditu**; beraz, araudi horietan jasotako xedapenak ez betetzeak zehapenak eragin ahal izango dizkio, eta zehapen horiek larriagotu ahal izango dira arau-hausteak adingabeen datuen tratamenduari eragiten dionean.

deportivas siguiendo las instrucciones recogidas en el respectivo **convenio de colaboración**, en cuanto la federación tendrá la consideración de persona encargada del tratamiento.

2.- **El tratamiento de datos deberá respetar lo establecido en la normativa de protección de datos**, y especialmente, cumplir con los principios del tratamiento que regula el RGPD en su artículo 5, para lo que deberán articularse formas que garanticen el cumplimiento de los citados principios.

3.- Respecto al **principio de minimización de datos**, será necesario aplicar medidas técnicas y organizativas para garantizar que **sean objeto de tratamiento los datos que estrictamente necesarios para cada uno de los fines perseguidos por el tratamiento. De igual forma, se deberá valorar la aplicación de medidas técnicas que permitan proteger los derechos de las personas interesadas.** Así, en caso de hacer públicos por cualquier medio algún dato personal, se deberá **eliminar de la publicación aquella información que no resulte estrictamente necesaria**. Además, en las publicaciones se deberá **seudonimizar el nombre completo de los y las jugadores, sustituyéndolo por el número de licencia.**

4.- **Garantizar el derecho de todo menor a que su interés superior** sea valorado y considerado como primordial en todas las accesiones y decisiones que le conciernan, así como se deberá de **tener especial consideración la protección reforzada** que recoge la normativa en relación al tratamiento de datos personales pertenecientes a personas menores de edad.

5.- Cuando la Federación actúe como **responsable del tratamiento** deberá de **cumplir todas las obligaciones que le impone la normativa de protección de datos**, por ende, el incumplimiento de las disposiciones recogidas en las mismas le podrá comportar sanciones, que podrán verse agravadas en cuando la infracción afecta al tratamiento de datos de personas menores de edad.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: Z6CG-JI7F-L2ZL-1PA9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Sin./Fdo.: BORJA SARRIONANDIA-IBARRA FERNANDEZ 2024-12-05
ESKOLA KIROLAREN ATALEKO BURUA
JEFE/A SECCIÓN DEPORTE ESCOLAR

Sin./Fdo.: CARLOS SERGIO ACHOTEGUI 2024-12-10
KIROLEN ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE DEPORTE